# Kultur Agenda

Martxoa Apirila

Agoitz 2023

948 336 690 · cultura@aoiz.es · Facebooken gaude




Agoizko Kultur Etxea

Casa de Cultura de Aoiz

Nafarroako Gobernua

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

## martxoa

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

## apirila

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |

## Martxoa

**3** **Liburu Aurkezpena.** *Susurros del Irati.* Kiko Lako

**4** **Pintxo-potea.**

**5** **M8. Antzerkia.** *Ganbara (El Desván).* Markeliñe

**8** **M8. Elkarretaratzea.** Emakumeen Nazioarteko Eguna

**8-31** **M8. Lehiaketa.** Berdintasunerako II. Erakusleiho Lehiaketa

**10** **Musika.** Agoizko Musika Eskola. Kontzertu orokorra

**11** **M8. Antzerkia.** *Señoricidio.* Irantzu Varelaren bakarrizketa

**11** **M8. Afaria.** Beti Jai

**12** **Zine-Dokumentala.** *Karpeta urdinak.* Ander Iriarte

**17-14** (martxoa/apirila) **Erakusketak.** *Herri izandakoak*

**18, 25** **Erakusketak.** *UMAFY, komikia*

**18** **Musika.** Bilaketa Ahots eta Instrumentu Taldea

**18** **Musika.** Sinergia

**18** **Musika.** En Esenzia

**18** **Hitzaldia.** *Ikastea... hobeto lagunekin*

**19** **Musika.** Mariano García Banda

**24, 25** **Antzerkia.** *Mulan.* DBH-ko 4.mailako ikasleak

**25, 26** **Tailerra.** *RITUAL 2023. Ilustrazioa eta errelatu grafikoa*

**31** **M8. Topaketa.** *Historia egiten duten emakumeak*

## Apirila

**1** **Musika.** Nª Señora de las Nieves de Falces Abesbatza

**2** **Musika.** Agoizko San Migel Abesbatza

**5** **Musika.** Agoizko Musika Eskola. Kontzertu didaktikoa

**20-27** (apirila/maiatza) **Erakusketak.** *Uholdeak. Materialak amatu*

**21** **Dantza.** *DNA 2023. Nik . Eu.* Ixa Konpainia

**21, 22** **Tailerra.** *RITUAL 2023. Ahotsa, errelatoa, irudia*

**28, 29** **Antzerkia.** *La casa de Bernarda Alba.* Irati Antzerki Taldea

PAPER EKOLOGIKOA
%100 BIRZIKLATUA

L. G NA 544-2016

# Musika

## AGOIZKO MUSIKA ESKOLA
**KONTZERTU OROKORRA**

**Martxoak 10 | ostirala | 17:00 | Kultur Etxea**

## BILAKETA AHOTS ETA INSTRUMENTU TALDEA
Bilaketa,

**Martxoak 18 | larunbata | 10:00 | San José Adinekoen Egoitza**




## SINERGIA (LIZARRA)
Bilaketa,

**HAIZEZKO SEIKOTEAREN KONTZERTUA**

**Martxoak 18 | larunbata | 11:00 | José Hierro Aretoa**

## EN ESENZIA
Bilaketa,

**ORKESTRAREN KONTZERTUA**

**18 martxoa** larunbata

**18:30 / 20:30. Kultur Etxea. 5€**

## MARIANO GARCÍA BANDA
Bilaketa,

**KONTZERTUA**

(Bilaketa Ahots eta Instrumentu Taldearen parte-hartzearekin)

**19 martxoa** igandea

**18:30 Kultur Etxea. 3€**

## Nª SEÑORA DE LAS NIEVES DE FALCES ABESBATZA



**1 apirila** larunbata

**20:30 Eliza.** Doan

## AGOIZKO SAN MIGEL ABESBATZA
**ELIZ MUSIKAKO KONTZERTUA**



**2 apirila** igandea

**19:00 Iglesia.** Doan

## AGOIZKO MUSIKA ESKOLA
**KONTZERTU DIDAKTIKOA**

**Apirilak 5 | ostirala | 11:30 | Kultur Etxea**

Ikastetxeko ikasleei soilik eskainitako kontzertua.

actos conmemorativos del

AOIZ.AGOITZ

# DÍA DE LA MUJER 2023
# EMAKUMEAREN EGUNA

ospatzeko ekitaldiak

## ANTZERKIA



**5** **martxoa** | igandea | **19:00**
**Kultur Etxea. 5€. 55´**

***GANBARA (EL DESVÁN)***
**Markeliñe**

*Ganbara* lanak, baserri mundu baten oroitzapenak berreskuratu nahi ditu antzerkiaren ikuspegitik. Autosufizientziak, lana sortzen zuen bizitzeko modu bat, non etxea (bizitzako eta laneko batasun espazioa) identitatearen ikono nagusi gisa agertzen da. Emakumeak baserriko ezinbesteko zutabe gisa duen balioa nabarmentzeko eta ohoratzeko ahalegina da ere.

## ELKARRETARATZEA



**8** **martxoa** | asteazkena | **19:00**
**Nafarroa Beherea plaza**

**EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA**

**GIZA MOSAIKOA + MUSIKA EMANALDIA**

## LEHIAKETA

**8-31** **martxoa**

**BERDINTASUNERAKO II. ERAKUSLEIHO LEHIKETA**

**Parte-hartzaileak:**

- **A. M. Salud y Belleza**
- Carnicería **Latasa** harategia
- Carnicería **Migueliz** harategia
- **Elke**
- **Estitxu Larrea**
- Farmacia **A. Bengoetxea** botika
- Farmacia **Bados Irisarri** botika
- Farmacia **Yolanda** botika
- Frontón **Toki Eder** frontoia
- **Goiburu**
- Bar **Kanpondoa** taberna
- Luna *“**el ganchillo de Mari**”*
- Óptica **Vistalea** optika
- Panadería / Okindegia
- **Panpoxa**
- **Reparazea**

M8

# BAKARRIZKETA



**11** **martxoa** | larunbata | **19:00**
**Kultur Etxea. 4€**

***SEÑORICIDIO***
**Irantzu Varela**

Irantzu Varelaren monologo berria dugu, *Señoricidio*, mingainari kosk egitean geratu zaigun guztia askatzeko.

Barre egingo dugu, haserre gaudelako eta barre egitea bururatzen zaigun gauzarik leunena delako.

Oraingoz.

# AFARIA

**11** **martxoa** | larunbata | **21:30**
**Beti Jai. 30€**

Txartelak Beti Jai jatetxean erosiko dira, martxoaren 1etik 8ra. Bigarren platerra aukeratu behar da.

**Menua:**

**Sarrerakoak, konpartitzeko**

Urdaiazpikoa
Patea
Plantxan eginiko txipien entsalada
Pasta, ziza eta onddoekin

**Bigarrenak, aukeratzeko**

Bakailaoa labean piperradarekin
Parrillan egindako lupia, olio errearekin
Txerri-errail gisatua
Txerri-azpizuna piperbeltz saltsarekin
Iberiko-risottoa eta barazkitxoak

**Postrea**
**Ardoa eta ura, ogia eta kafea**

# TOPAKETA

**31** **martxoa** | ostirala | **19:00**
**Kultur Etxea**

***HISTORIA EGITEN DUTEN EMAKUMEAK***
**Doan**

Isiltasunaren espirala, ikusgaia eta ikustezina, kontaktua, indarra, igarotzen eta elkartzen diren sei istorio. Sei emakumeren historia, emakumeak historia egiten.

Mugimugi Aoiz Agoitz
AGOITZ JASANGARRIA AOIZ SOSTENIBLE
AYUNTAMIENTO DE AOIZ AGOIZKO UDALA
Instituto Navarro para la Igualdad — INAI NABI — Nafarroako Berdintasunerako Institutua
Gobierno de Navarra — Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030

# Antzerkia

## *GANBARA (El Desván)*
### MARKELIÑE



**5 martxoa**
igandea
**19:00 Kultur Etxea. 5€**

Euskaraz, ia testurik gabe.
6 urtetik aurrera / Iraupena: 55 min.

*Ganbara* lanak, baserri mundu baten oroitzapenak berreskuratu nahi ditu antzerkiaren ikuspegitik. Autosufizientziak, lana sortzen zuen bizitzeko modu bat, non etxea (bizitzako eta laneko batasun espazioa) identitatearen ikono nagusi gisa agertzen da. Emakumeak baserriko ezinbesteko zutabe gisa duen balioa nabarmentzeko eta ohoratzeko ahalegina da ere.

## *SEÑORICIDIO*
### IRANTZU VARELAREN BAKARRIZKETA



**11 martxoa**
larunbata
**19:00 Kultur Etxea. 4€**

Irantzu Varelaren monologo berria dugu, *Señoricidio*, mingainari kosk egitean geratu zaigun guztia askatzeko.

Barre egingo dugu, haserre gaudelako eta barre egitea bururatzen zaigun gauzarik leunena delako.

Oraingoz.

## *MULAN*
### DBH-KO 4.MAILAKO IKASLEAK




**24.25 martxoa**
**Kultur Etxea. 5€**
**19:00 (ostirala) / 18:00 (larunbata)**

Publiko guztiak
Iraupena: 60´

Mulanek gizonezko mozorrotzea erabaki du, bere benetako nortasuna babesteko eta deskubritu ez dezaten, baina bere sekretua argitara aterako da.

**Antolatailea:** DBH-ko ikasleek Irati Antzeki Taldearekin batera.

## *LA CASA DE BERNARDA ALBA*
### IRATI ANTZERKI TALDEA



**28.29 apirila**
**Kultur Etxea. 6€**
**20:00 (ostirala) / 19:00 (larunbata)**

Espainiako gerra zibilaren aurreko herrietako gizarte itogarri, totalitario eta errepresiboaren isla den drama aurkezten du.

Zortzi emakume aita hil berriaren doluari lotuta daude. Horrek gatazkak, lehia, emozio ezezagunak, sekretuak, desioa, inbidiak, eromena... piztuko ditu "Bernardaren kartzelan".

# Dantza

## DNA PROGRAMA 2023
### DANTZA LURRALDEAN

DNA. Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak antolatutako programa artistiko bat da DNA, Baluarte Fundazioarekin lankidetzan, eta dantza garaikidea eta mugimenduaren arteak sustatzea du helburu

## *NIK . EU*
### IXA KONPAINIA

estreinaldia



**21** **apirila** ostirala

**20:15 Kultur Etxea. 6 €**

Zuzendaritza: Xian Martínez
Iraupena: 50 min.

Agoizko Kultur Etxeko espazio eszenikoan sorkuntzako egoitza artistikoaren ondoren, iXa konpainiak bere sorkuntza berriaren estreinaldia aurkeztuko digu. *NIK·EU* oroitzapenen eta esperientzien kutxa gisa planteatzen da, bizi izandako errealitateen museo gisa, gure ni-en barru-barruko guztia ikusle bakoitzarekin bilatzeko eta konektatzeko ideien desordenan antolatutako espazio gisa. NIK, ni euskaraz jabetzearen ekintzan eta EU, ni galegoz, kutsu autobiografikoa duen lan baten izenburuarekin uztartzen dira, non ikuspuntu dibertigarri, zirraragarri eta intimotik bizitako emozioak eta errealitateak islatuko diren. Gizabanakoaren maskulinitatea deseraiki egiten da, gizarte-egitura heteropatriarkalak haurtzarotik heldutasunera arte gizakiaren hazkundean nola eragiten duen hausnartzera gonbidatzeko.

**Funtzioaren ondoren solasaldia izanen da.**

# Mintzakide egitaraua

**martxoak 1 | asteazkena | 17:00 | Euskararen Etxetik**
***Irati* filma ikusteko Agoiztik Iruñera joanen gara**

**martxoak 12 | igandea | 9:00 | Elizaren ondoko aparkalekutik**
**Ibilaldi gidatua, Aimar Egiluzekin**
**Erralako erkametza eta Induriagako nekropolia ezagutuko dugu**

**martxoak 19 | igandea**
**Mendi ibilaldia, haurrekin.** **Zuntzarren - Gurpegi - Zuntzarren**

**martxoak 24 | ostirala**
**Euskal poteoa**

**apirilak 2 | igandea**
**Ibilaldi gidatua, Aimar Egiluzekin.** **Legineko gaztelua**

**apirilak 9 | igandea**
**Mendi ibilaldi erraza.** **Iriso-Gongolaz-Zuza-Iriso**

**apirilak 21 | ostirala**
**Euskal poteoa**

**apirilak 30 | igandea**
**Ibilaldi gidatua, Txaro Minarekin**
**Irati ibaia eta Agoizko zuhaitz bereziak**

**Izen-ematea:**
607 642 078
garralda@aek.eus

Mintza kide 607 642 078

# Erakusketak

asteartetik
larunbatera
**18:00-20:00**

## HERRI IZANDAKOAK



**17-14** **martxoa-apirila**
Erakusketa Aretoa

*Herri izandakoak* Toño Villanueva Abaurreak eta Juan Jesús Leache Goñik asmatutako asmo handiko proiektua da. Erronka: Itoizko urtegiko urez betetako herriak eskala txikian eraikitzea. Emaitza: 7 maketa bikain, urpean dauden herriak xehetasunez eta errealismoz islatzen dituztenak. Zalantzarik gabe, ezinbesteko ibilbidea da. Lan emozionala izanen da pertsona askorentzat, eta ezezaguna beste batzuentzat. Desagertutako herri horietakoen testigantzak, argazkiak eta deskribapenak biltzen dituzten 14 azalpen-panelek osatzen dute erakusketa. Artozki, Ezkai, Gorritz, Itoitz, Muniain, Nagore eta Orbaitzek merezi dute oroitzapen hau.

**Inaugurazioa:**
martxoak 17 | ostirala | 19:00

## UHOLDEAK

***Uholdeak*** Uharteko Arte Garaikideko Zentroak sustatutako arte- eta erakusketa-programa bat da. Proiektuaren helburu dira: lekuko artisten lana ikusaraztea, Nafarroan praktika kuratoriala sustatzea eta Nafarroan zehar praktika artistiko garaikideak eskuragarri jartzea.



### *MATERIALAK AMATU*

**20-27** **apirila-maiatza**
Erakusketa Aretoa

Erakusketa honetan Natalia Isla Sarratea kuradoreak "ama ona"ren asmoaren eta zaintzailearen papera betetzen duenaren pertzepzio pertsonal eta afektiboaren arteko norgehiagokari buruz hausnartzera gonbidatzen gaitu. Egungo tentsio sozial horren ondorioz, honako galderei erantzun nahi izan die: Zer izendatzen dugu amatasunezkotzat gaur egun? Eta horren zer alderdi ezagut ditzakegu Nafarroako arte garaikidean? Artista bakoitzak, bere bizi-esperientziatik -ama biologikoa izateak soilik baldintzatzen ez duenetik, bai, ordea, zaintzaile izanda edo zainduta izandakotik- gorputzaren materiaren, egoera psiko-afektiboen eta denboraren nozioaren arteko harremanei buruz hausnartzen du. Mantentzea, eustea, tolestea, zaintzea, hustea eta errepikatzea keinu artistikoak dira, zainketa-lanean edo amatasun-lanean kontraesanak eta anbibalentzia emozionala adierazten dituztenak.

### BITARTEKARITZA PROGRAMA:

#### *AHOTSA AMA-MATERIAL GISA*

**apirilak 23 | igandea | 19:00 | Kultur Etxea | Doan**

Zarys Falcon artistak, nana eta errezoetan inspiratuta, gidatutako kantu kolektibo bat osatzeko eta ahotsa entzuteko gonbidapena.

#### *AMA-IRAKURKETA ETA IDAZLANAK*

**maiatzak 4 eta 11 | osteguna | 17:30-19:00 | Kultur Etxea | Doan**

Irakurketa eta idazketa lantzeko bi saio, gorputzari, memoriari eta doluari buruzko hausnarketa kolektiboa egiteko, amaren inguruan, Kati Leatxerekin.

#### *MATERIALAK AMATU (FILM LABURRA)*

**21 de mayo | igandea | 19:00 | Kultur Etxea | Doan**

Mirari Echávarri eta Irati Gorostidi errealizadoreek komentatutako *San Simón 62* (2022) laburmetraiaren proiekzioa, laurogeiko hamarkadan Lizasoko Arco Iris komunitateko partaideak izan ziren euren amen memorietara hurbiltzen dena.

# Erakusketak

asteartetik
larunbatera
**18:00-20:00**

## *UMAFY, KOMIKIA*
### UMAFYko IKASLEAK

**18-25** **martxoa**
José Hierro Aretoa

Bilaketa,

**UMAFYko ikasleek bisitaldia egingo dute:**
martxoak 18 | larunbata | 12:15

# Beste Jarduerak

## PINTXO-POTEa
**martxoak 4 | larunbata | 19:00**

pintxopote

---

## HITZALDIA
## *IKASTEA... HOBETO LAGUNEKIN*

Bilaketa,

**Sacramento Pinazo Hernández**ekin
**martxoak 18 | larunbata | 13:00 | Kultur Etxea**

---

## *RITUAL 2023* TAILERRAK.
### *AURREPIRINIOKO ONDAREA ETA ERRELATO FEMINISTA*

INNOVA KULTURALak eta bertako udalek lagunduta.

Tailerretako emaitza Artzibarren, abuztuan, burutuko den Jaialdian ezagutaraziko da.

**NORI ZUZENDUTA:** 16 urtetik gorako Aurrepirinioetako emakumeei, beren arbasoen ahotsa (emakumeena) eta kontakizuna formatu artistikoen bidez berreskuratzeko interesa dutenei.

**INBERTSIOA:** 25€. (Adingabeak eta langabetuak 15€)

**ARGIBIDE GEHIAGO ETA IZEN-EMATEA:** 664 388 696

### 1. *ILUSTRAZIOA ETA ERRELATU GRAFIKOA Marrazkiz eta hitzez dokumentatzea*.

Gure bizitza, kontakizunak -geureak eta jasotakoak- eta gertatzen zaiguna dokumentatzea, arkatza eta papera erabiliz. Gure kontakizunak zabaltzea, emakumeen komunitatean partekatzea, bertako komunitateari buruzko ñabardura berriak sortuz.

**EMALEA:** Myriam Cameros. Ilustratzailea.

**DATAK:** martxoak 25 | larunbata | 10:30-14:00 y 16:30-19:30
martxoak 26 | igandea | 11:30-14:00

### 2. *AHOTSA, ERRELATOA, IRUDIA. Irudien bilaketa, Aurrepirinioko emakumeen bizitza kontaketetatik abiatuta*.

Aurrepirinioko emakumeen eta parte-hartzaileen ahots eta istorioetatik abiatuta, kontakizun kolektibo bat sortuko dugu. Irudiak bilatzen hasiko gara, ilustratzeaz gain, ahotsak zabaldu eta anplifikatu ahal izateko, kontakizunei geruzak erantsiz. Tailerrean, 16mm-ko kamera batekin filmatuko dugu eta errebelatu eginen ditugu.

**EMALEA:** Maddi Barber. Zinegilea.

**DATAK:** apirilak 21 | ostirala | 17:00-20:00
apirilak 22 | larunbata | 10:00-14:00 y 16:00-20:00

# Literatura

## SUSURROS DEL IRATI
*KIKO LAKO ITOIZ*



**martxoa**ren **3 | ostirala | 19:00 | Kultur Etxea**
**Liburu aurkezpena**

“Bizi izan diren eta bizi diren emakume eta gizonei, sufritu eta sufritzen ari direnei, ibai berezi honen ertzetan, Irati ibaia, zeinaren xuxurla entzun dezakegu...”

# Zine - Dokumentala

## KARPETA URDINAK
*ANDER IRIARTE*




**12** **martxoa,** igandea
**Kultur Etxea.** Doan
**18:30** Nafarroako Torturatuen Elkartea

Proiekzioa + Solasaldia zuzendariarekin
Iraupena: 113 min.

Anderrek susmatzen du, beste askok bezala, aita komisarian jasandakoa tortura izan zela.

Bere susmoa argitu nahian, Eusko Jaurlaritzak -Bake eta Bizikidetza Planaren barruan- egindako “1960tik 2014ra bitartean Euskal Autonomia Erkidegoan gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua” ezagutu du. Ikerketa honek argitaratzen dituen emaitzekin, proiektuan parte hartu zuten mediku, psikologo, psikiatra eta abokatuen eskutik tortura psikologikoa, Istanbulgo Protokoloa edo hurbilketa estatistikoa bezalako kontzeptuetan sakontzen du, eta ipar munduko torturaren errealitatea ezagutarazten du.

# Kultur Etxea

Jendearentzako arreta, astelehenetik ostiralera (10:00-14:00)

948 336 690 cultura@aoiz.es Facebooken gaude

## Sarreren salmenta:

- Interneten: **www.aoiz.es**

***Oharra:** Sarrerak Internet bidez erosi ezin duenak salgai izanen ditu Kultur Etxean, erakusketak dauden egunetan, 18: 00etatik 20: 00etara.

- Leihatilan, ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenago
(sarrerarik gelditzen bada)

*Hartutako sarrerak ezingo dira aldatu, ezta itzuli ere, ikuskizuna bertan behera uzten denean izan ezik.

www.aoiz.es